



DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2017

EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK

| | |
|---|----|
| 1. Jarduera uztea dela-eta salgaien sektore publikoarentzako laguntzak | 3 |
| 2. Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko diru-laguntzak | 4 |
| 3. Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko diru-laguntzak | 5 |
| 4. Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien errepideko garraioaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako diru-laguntzak..... | 6 |
| 5. 2017. urtean Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa..... | 7 |
| 6. Oinarrizko ikerketa, ikerketa industrial, garapen esperimental, berrikuntza-proiektuak zerbitzuen antolaketaren arloan eta I+G+B-ko proiektuei lotutako bideragarritasun-azterlanak laguntzeko programak, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektorean | 8 |
| 7. Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan berrikuntza-proiektuak aurrera eramateko laguntza-programa..... | 9 |
| 8. Euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzen programa.. | 10 |
| 9. HAZITEK 2017 Programa..... | 11 |
| 10. ELKARTEK 2017 Programa | 13 |
| 11. EMAITEK PLUS Programa..... | 14 |
| 12. BERRIKERTU Programa..... | 15 |
| 13. Euskal Autonomia Erkidegoko landa eremuetan ekonomiaren garapenerako eta ekonomia-dibertsifikaziorako laguntzak, G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuei dagokienez (EREIN PRIBATUAK) | 16 |
| 14. Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak, G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuei dagokienez (EREIN PUBLIKOAK) | 17 |
| 15. 2015-2020. aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren esparruan onartu zen LEADER eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak | 18 |
| 16. Nekazaritza eta Abeltraintzako ustategietan sasoiko lana egiten duten pertsonen ostatueterako laguntzak | 20 |
| 17. Animalien ongizatea | 21 |
| 18. Nekazaritza-ekoizleen elkarteak eta haien batasunak..... | 22 |
| 19. Nekazaritza-sektoreko lanbide-elkarteak (Elkarteak Programa)..... | 23 |
| 20. Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak..... | 24 |
| 21. Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa nekazaritzan eta ingurumenean | 25 |
| 22. Minimis untxi-ustategientzako..... | 26 |
| 23. Arraza garbien abeltzain elkarteak..... | 27 |
| 24. Arrantza eta Akuikultura iraunkorra sustatzeko Programa..... | 28 |
| 25. Arrantza sektoreko elkarte profesionalak (Elkarteak Programa)..... | 30 |
| 26. Gaitzeko beka programa Pasaia, Ondarroa eta Bermeoko Zentroetan..... | 31 |
| 27. Tokiko garapen parte-hartzailea..... | 32 |
| 28. Nekazaritzako elikagaien sektoreko elkarte profesionalak (Elkarteak Programa) | 34 |



| | |
|--|----|
| 29. Nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzak | 35 |
| 30. «Basque Label Harategiak» marka berrira atxikiko diren harategi tradizionalentzako laguntzak | 36 |
| 31. Programa Lehiatu Berria | 38 |
| 32. Lehiatu Sustapena Programa..... | 40 |
| 33. Fruta eta barazki ekoizleen erakundeak | 41 |
| 34. Hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko MAB programa | 42 |
| 35. GAUZATU INDUSTRIA programa, oinarri teknologikoa duten ETEak edota ETE berritzaileak sortzen laguntzekoa, etorkizunerako lehiakortasun-estrategia gisa, enplegua sortzen duen inbertsioa bultzatzen duena..... | 43 |
| 36. INDARTU PROGRAMA (Enplegua sortzeko inbertsio produktiboa egingo duten enpresentzako diru-laguntzen programa, Nerbioi itsasadarraren ezkeraldea eta Oartzualdea sustatzeko)..... | 45 |
| 37. Bideratu Berria Programa..... | 47 |
| 38. Nazioartekotze-bekak (Beint programa)..... | 48 |
| 39. Global Training bekak..... | 49 |
| 40. Global Lehian - Banaka nahiz lankidetzan jarduten duten ETEen nazioartekotzeari laguntzea | 50 |
| 41. Elkartzen..... | 51 |
| 42. Interlehian Programa | 52 |
| 43. Landhome..... | 53 |
| 44. Gauzatu Kanpo-Ezarpenak | 54 |



1.- Izenburua

Jarduera uztea dela-eta salgaien sektore publikoarentzako laguntzak

2.- Araua

Agindua, 2017ko ekainaren 28koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, jarduera uztea dela-eta salgaien sektore publikoarentzako laguntza-programa bat ezartzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horiek ematen dira errepideko garraio publikoaren sektorearen arazoetako bati aurre egiteko, hain zuzen ere, garraiolari autonomoen adin handiari. Hori dela-eta, egokitze jotzen da lan-bizitzaren zatirik handiena errepideko garraio publikoaren sektorean eman duten adineko profesionalak jarduera uztea sustatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

183.750 euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2017 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura.

Laguntza horiek eskatzeko 24 espediente izapidetu dira, eta haietatik 22 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 183.750 euro, hau da, eskainitako diru-kopuru osoa.

Arauk aurrekontu-programaren helburu, ekintza eta adierazle hauei eragiten die:

HELBURUA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA

EKINTZA: GARRAIOLARIENTZAKO LAGUNTZA.

ADIERAZLEA: Jarduera uztea (garraiorako baimenari uko egiten dioten garraiolarien kopurua): 20

Aurkeztutako 24 eskabideetatik 22 onuradun egoteak esan nahi du adineko 22 garraiolarik lanbidea utzi eta jarduera-baimenari uko egin diotela. Emaitza horiek hurbildu egiten dira 2017rako aurrekontuen memoriaren 20 magnitudeetan ezarritako helburuetara, eta horrek, kontuan hartuta eskabide kopurua handia izan dela (aurreko urtearekin konparatuz), programaren helburuak betetzen laguntzen du. 2016 ko deialdian, uko egite-kopuru altua ondorio da, bateragarriak direnez gero, kreditua ahitzeagatik haietatik kanpo utzita geratzerakoan Sustapen-Ministerioak deitutako laguntzen onuradunak ez zirela gertatu.



1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko diru-laguntzak

2.- Araua

Agindua, 2017ko ekainaren 28koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko laguntza-programa bat sortzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko. Lortu nahi den helburua da zerbitzua emateko garaian segurtasuna, kalitatea, gardentasuna eta bizkortasuna handitzea; alde batetik, positiboa da garraiolariarentzat, zerbitzua azken belaunaldiko produktuekin modernizatzeo aukera emango diolako, eta bestetik, erabiltzailearentzat ere onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzu bat jasotzen duelako.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

50.000 euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2017 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura.

Laguntza horiek eskatzeko 13 espediente izapidetu dira, eta haietatik 10 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 37.325,37 euro.

Arauk aurrekontu-programaren helburu, ekintza eta adierazle hauei eragiten die:

HELBURUA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA

EKINTZA: GARRAIOLARIENTZAKO LAGUNTZA.

ADIERAZLEA: Modernizatzea (teknologia berriak, intermodalitatea): 100

Programaren eta helburuen burutzapen- eta betetze-mailari dagokionez, emaitzak (13 eskabide eta 10 onuradun, eta, beraz, 60 ibilgailu ekipatutak) aurretik ezarritako helburuetara hurbiltzen dira (60 ibilgailu ekipatu dira baina batzuetan dispositibo bat baino gehiagorekin).



1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko diru-laguntzak

2.- Araua

Agindua, 2017ko ekainaren 28koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat sortzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hauek ematen dira kalitatearen kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien garraio publikoko sektorean. Laguntza hauekin lortu nahi da zerbitzua segurtasun, kalitate, gardentasun eta bizkortasun handiagoz ematea; alde batetik, positiboa da garraio-enpresarentzat, bere egitura modernizatzeko aukera emango diolako, bezeroentzako kalitateko zerbitzuak kudeatu eta ematen dituen sistema baten bitartez; eta bestetik, erabiltzailearentzat ere onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzu bat jasotzen duelako.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

40.000,00 euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2017 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura.

Laguntza horiek eskatzeko 5 espediente izapidetu dira, eta haietatik 4 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 4.782,70 euro.

Arauk aurrekontu-programaren helburu, ekintza eta adierazle hauei eragiten die:

HELBURUA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA

EKINTZA: GARRAIOLARIENTZAKO LAGUNTZA.

ADIERAZLEA: Modernizatzea (teknologia berriak, intermodalitatea): 15.

Programaren eta helburuen burutzapen- eta betetze-mailari dagokionez, 2017ko emaitzak (5 eskabide eta 4 onuradun) eskabideen kopuru jeitsiera nabarmena da, ondorioz, eskainitako diru-kopuru handia eman gabe geratzen da.



1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien errepideko garraioaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko ekainaren 28koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien errepideko garraioaren arloko elkarte profesional eta enpresarialeiei laguntzak emateko deia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira salgaien eta bidaiarien errepideko garraioaren arloko elkarte profesional eta enpresarialen jardura eta ekimenei laguntzeko. Helburua da erakunde horiei laguntzak emateko mekanismo bat ezartzea, uste baita elkarte profesional eta enpresarialak gai direla sektorean dauden gabeziak betetzeko behar diren ekimenak sortzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

60.000 euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2017 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura.

Laguntza horiek eskatzeko 7 espediente izapidetu dira, eta haietatik 7 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 60.000 euro.



1.- Izenburua

2017. urtean Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa

2.- Araua

2017ko ekainaren 27ko AGINDUA, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuarena, Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautu eta horiek deitzen dituen 2017ko ekitaldirako. (2017ko uztailaren 10eko EHAA).

3.- Diru Laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programak Telekomunikazioetako Operadoreei inbertsioen %90arteko diru laguntzak ematen dizkie, gune zuri moduan kategorizatutako industrialdeetan dauden enpresei Banda Zabaleko zerbitzuak hornitzeko. Aipatu guneak dira belaunaldi berriko banda zabaleko sarerik ez dutenak eta datozen hiru urteetan horrelakorik izatea aurreikusita ez dutenak, eta soilik horientzat eman ahal izango da diru laguntza.

Programaren asmoa da Euskadi 2020ko Agenda Digitaleko 53. egitasmo traktoreari erantzutea, banda zabaleko sareen gabezia gainditzeko, euskal enpresek gutxienez Mb/s-ko zerbitzua izan dezaten, merkatuko prezioetan, jarduera ekonomiko industrialeko gune guztietan.

Halaber, belaunaldi berriko banda zabaleko sareak edukitzea funtsezko elementua da Eusko Jaurlaritzak enpresei lotuta dituen beste estrategia batzuen euskarri moduan, horien artean egonik Espezializazio Adimentsuko Estrategia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana eta 4.0 Industriaren estrategia.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Eskari bat jaso zen, 146 industrialdetakoak, eta, 2017ko urriaren 17ko Gobernu Kontseiluaren erabakiz, 146 industrialde horietarako laguntzak onartu ziren, 1.132 enpresa eta 20.575 langilerengana iristeko; esleitutako fondoak 7.977.068,10 euro izan ziren eta mobilizatutako inbertsioa 8.863.409 eurokoa izan da.

Programa Proiektu Estrategikoen Funtsetik elikatzen da, 2015eko abenduan Ekonomia Sustapenaren Euskal Kontseiluak 10.700.000 euro erabiltzea onartu baitzuen, Funtsetaren kontura, programa martxan jartzeko. Ondorioz, 2016. urtean zehar, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren lidergoaren pean, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundietan dagozkien arloekin lankidetzan, egitasmoa diseinatu eta abiarazi zen, 2017. ekitaldian jarraipena izan duelarik.



1.- Izenburua

Oinarrizko ikerketa, ikerketa industrial, garapen esperimental, berrikuntza-proiektuak zerbitzuen antolaketaren arloan eta I+G+B-ko proiektuei lotutako bideragarritasun-azterlanak laguntzeko programak, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektorean

2.- Araua

2017ko deialdia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2017ko irailaren 6ko Aginduaren bitartez egin da (2017ko irailaren 26ko EHAA).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan eraginkortasuna areagotzea, lehiakortasuna hobetzea, hazkunde iraunkorren laguntzea eta sektore horietan integratutako agenteen arteko lankidetzak sustatzea.

Era berean, laguntza hauekin nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreen ikerkuntza, garapena eta berrikuntza suspertu eta sustatu nahi da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko ekitaldiko I+G jarduerak sustatzeko neurrien deialdiaren bidez, sektoretik bertatik eskatutako 41 ekimen berri lagundu zaie, hain zuzen ere atzemandako problematika garrantzitsuenei irtenbidea bilatzera bideratutako I+G proiektuak gauzatzeko. EAEko Aurrekontu Orokorren kargura diruz lagundutako guztizko zenbatekoa 1.399.177,93 € izan da.

Deialdian, 51 eskatzaile izan dira, eta horietatik 10 kanpoan utzi behar izan dira, nahikoa aurrekontu-baliabiderik ez zegoelako (8), epez kanpo (1) eta ez ditu baldintzak betetzen (1).

Inpaktu soziala oso handia da; izan ere, oso programa finkatua da eta nekazaritzako eta arrantzako enpresei eta elkarteei beren jardueran atzemandako zenbait problematikari irtenbidea emateko aukera eskaintzen die, ikerketarekin eta garapen teknologikoarekin lotutako ekintzen bidez eta betiere berrikuntza-ekintzei arreta berezia emanez.



1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan berrikuntza-proiektuak aurrera eramateko laguntza-programa

2.- Araua

2017ko deialdia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2017ko irailaren 27ko Aginduaren bitartez egin da (2017ko urriaren 26ko EHAA 194 zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan eraginkortasuna areagotzea, lehiakortasuna hobetzea, hazkunde iraunkorrean laguntzea eta sektore horietan integratutako agenteen arteko lankidetzak sustatzea.

Era berean, laguntza hauekin nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreen ikerkuntza, garapena eta berrikuntza suspertu eta sustatu nahi da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko deialdian ez da onuradunik egon, eskabiderik ezagatik. Beraz, ez dira bete aurreikusitako aurrekontuzko magnitudeak. Gauzak horrela, espero ziren onura eta inpaktu soziala ez dira bete.



1.- Izenburua

Euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzen programa

2.- Araua

Urriaren 23ko 185/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak arautzen dituena (azaroaren 24ko 608/2009 Dekretuak aldatutakoa).

2017ko deialdia (aurrez izapidetza) Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunaren sailburuaren 2016ko irailaren 14ko Aginduaren bitartez egin da (2016ko irailaren 21eko EHAA 180).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Honako xede hau duten beka deitza: nekazaritzako, elikadurako eta arrantzako sektoreetako arlo zientifiko-teknologikoetan eta merkatuen, marketinaren eta enpresa-antolamenduaren arloetan gazte ikertzaile eta teknologoak kualifikatzea eta espezializatzea ahalbidetzea, ikerketarekin, garapen teknologikoarekin edo berrikuntzarekin lotutako proiektua garatuz. Bi beka-programa ezartzen dira:

- A) Prestakuntzan diharduten gazte ikertzaileei zuzendutako laguntza-programa.
- B) Teknologo gazteei prestakuntza ematera zuzendutako laguntza-programa.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa hauen bidez 21 beka eman dira, 10 teknologo gazteei prestakuntza ematera zuzendutako laguntza-programan eta 11 prestakuntzan diharduten gazte ikertzaileei zuzendutako laguntza-programan. Guztiak EAEko nekazaritzako eta arrantzako sektorearentzat interes bereziko arlotzat hartzen diren arloetan. 57 eskatzailek hartu duten parte deialdi honetan (40 emakume eta 17 gizon). Neurri honen inpaktu soziala nabaria da, doktore kopurua handitzeko aukera ematen duelako, eta, era berean, langile kualifikatu eta espezializatuak enpresa-sarera sartzea ahalbidetzen delako.



1.- Izenburua

HAZITEK 2017 Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2015eko abenduaren 23koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, 2016ko ekitaldian Enpresen I+G sustatzeko Hazitek programa arautzen eta deitzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua ikerkuntza industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak burutzen laguntzeko laguntza-programak ematea da. Proiektu horiek izaera lehiakorra nahiz estrategikoa izan dezakete, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planean jasotako espezializazio-esparruetan gauzatzekoak dira.

Lehiakortasun-proiektuak: Izaera lehiakorreko I+G proiektutzat joko dira ikerkuntza industrial eta garapen esperimentaleko proiektu-tipologia hauek:

- 1) Produktu berriak garatzeko proiektuak.
- 2) Zientzian eta teknologian oinarritutako enpresa berriak sortzeko proiektuak.

Proiektu estrategikoak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planean espezializazio-esparruetan jasotako izaera estrategikoko ikerkuntza industrial eta garapen esperimentaleko proiektuak lagunduko dira diruz. Proiektu horiek, teknologia- eta berrikuntza-esparruetako ikerkuntza eta garapenean, sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren behar beharko dute.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

| | Babestutako proiektuak | onartutako aurrekontua | Diru-laguntza |
|---------------|------------------------|------------------------|---------------|
| Estrategikoak | 35 | 108.437.828 € | 41.517.714 € |
| Lehiakorrak | 720 | 184.968.434 € | 40.041.955 € |

Lehiakortasunerako Hazitek programa baliagarria da enpresen gaitasuna eta ezagutza handitzeko, eta, horrenbestez, hazkunde ekonomikoa areagotzeko; halaber, egokia da egungo gizarte dinamiko, konplexu eta globalak unean-unean dituen behar berriekin eta iraunkortasun-premiarekin zerikusia duten eskari zientifiko-teknologikoei erantzun egokia emateko.



Hazitek programaren ildo estrategikoa baliagarria da lankidetzaren publiko-privatua garatzeko eta enpresa-partzuergoak sustatzeko, baldin eta ikerketa jarduketaren estrategikoko esparruetan egiten badute, Euskadiko ekonomia sustatzen badute, eta, aldi berean, I+G+b arloko lankidetzaren-kultura zabaltzen badute zientzia-, teknologia-, enpresa-sistemako eragile guztien artean.

Gizarte-irratia: hazkunde ekonomikoa, enpresen lehiakortasun handiagoak eraginda, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak eskaintzearen eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresa eta patente berriak sortzearen ondorioz, horrekin guztiarekin enplegua sortu eta euskal enpresa-sarea dibertsifikatu nahian.



1.- Izenburua

ELKARTEK 2017 Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2015eko abenduaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzetarako 2016ko deialdia egin eta laguntzak arautzen dituena (Elkartek Programa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programa honek ikerketa-proiektu kolaboratiboak babesten ditu, dela oinarrizkoak, dela industrialak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea osatzen duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek egindako Elkarlaneko Ikerketa sustatzeko (Elkartek programa).

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

| Babestutako proiektuak | Zk. | Aurrekontu onartua | Emandako diru-laguntza |
|--|-----------|---------------------|------------------------|
| Oinarrizko ikerketa kooperatiboak egiteko proiektuak | 27 | 24.017.731 € | 24.017.731 € |
| Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuak | 35 | 11.297.283 € | 5.648.641 € |
| Interes bereziko ekintza osagarriak | 6 | 667.256 € | 333.628 € |
| GUZTIRA | 68 | 35.982.269 € | 30.000.000 € |

Proiektuak bat datoz Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020 Euskadi Planaren espezializazio-esparruekin.

Programa baliagarria da ezagutza lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interes estrategikoa duten garapen teknologikoko esparruetan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020 Euskadi Planean jasotakoetan, alegia.

Gizartean izango duen inpaktua: Ezagutza estrategikoa sortzea garapenerako, enpresen lehiakortasuna sustatzea, enpresa-sektore berriak sortzea etorkizunean.



1.- Izenburua

EMAITEK PLUS Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Emaitek Plus laguntzen programa arautzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Foku Anitzeko Teknologia Zentroyen eta Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroyen jarduera ez-ekonomikoari laguntzera bideratutako laguntza publikoak. Hala, finantzaketa esleituko die, jardueraren emaitzen ebaluazioaren eta analisiaren bitartez, maila globalean, Emaitek Plus programaren bidez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontua, guztira: 56,9 milioi euro.

Hamar teknologia-zentroyen eta lau CIC ikerketa-zentro kooperatiboren jarduera ez-ekonomikoa babestu da; era berean, 23 hobekuntza-ekintza lagundu dira teknologia-zentroyen aginte-koadroa betetzeko, eta 24 hobekuntza-ekintza egin dira CICetako aginte-koadroyen betetzea hobetzeko.

Programa baliagarria da zentro teknologikoei eta laguntzeko, eta finantzaketa esleitzen die haien jardueran maila orokorrean izandako emaitzak ebaluatu eta aztertuta, adierazledun aginte-koadroyen baten bidez, ekitaldi bakoitzean lortu beharreko helburu batzuekin.

Gizartean izango duen inpaktua: Ezagutzak hobetzea, ikerketen emaitzak hedatzea, garapenerako sustapen ekonomikoa egitea eta enpresen lehiakortasuna sustatzea, EAEk garapen jasangarria izan dezan.



1.- Izenburua

BERRIKERTU Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 28koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, giza kapital ikertzailea sartzeko diru-laguntzak arautzen dituena. Berrikertu Programa.

EBAZPENA, 2016ko abenduaren 30ekoa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, giza kapital ikertzailea sartzeko programaren deialdia egiten duena (Berrikertu 2016-2017 programa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Azken xedea ZTBESeko enpresen eta eragileen lehiakortasuna finkatzea da, horretarako enpresetako giza baliabideak sustatuta eta ezagutza nahiz berritzeko gaitasuna bultzatuta. Enpresentzako eta agenteentzako laguntzak dira, doktoreen eta ikertzaileen kontratazioa sustatzeko (3 urte arteko kofinantzaketa) eragile eta enpresetako I+G++b arloetan, eta, horrenbestez, ikertzaileen eta teknologoien masa kritikoa handitzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016. urteko deialdia. 2.100.000,00 €-ko aurrekontua.

Guztira 98 eskaera onartu aurkeztu dira, 2016-2017 aldiaren kontratatutako ikerlariei dagozkienak; horietatik 11 ZTBESeko eragileak izan dira eta 87 enpresetan; bestela esanda, 43 kontratu-berritzeak izan dira eta 55 kontratu berriak.

Kontratazioen % 30 doktoreak dira, eta % 70, berriz, unibertsitate tituludunak. Era berean, % 68,4 gizonak dira eta % 31,6 emakumeak.

Gizartean izango duen inpaktua: enpresen lehiakortasun eta garapen teknologiko handiagoa, ekonomia ezagutzan oinarrituta egotea, eta giza baliabideen garapenaren iraunkortasuna. Orain dela hamarkada batetik, bigarren eta hirugarren graduako unibertsitate-titulua duten 1.000 pertsona inguru izan dira onuradun, EAEko enpresetan eta ZTBESan sartu baitira.



1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko landa eremuetan ekonomiaren garapenerako eta ekonomia-dibertsifikaziorako laguntzak, G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuei dagokienez (EREIN PRIBATUAK)

2.- Araua

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2017ko maiatzaren 31ko Agindua.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu horren bidez hauetarako laguntzak eman dira:

- Nekazaritza-sektorearekin lotuta ez dauden jarduerak, baina sektore hori dibertsifikatzen dutenak.
- Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta garapena eta autonomoetan alta emandako pertsona fisikoek garatutako proiektuak.
- Enpleguaren sorrera garbia.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

68 eskari aurkeztu dira guztira eta horietako 50 proiekturi eman zaio baiezeko erantzuna.

Deialdi horren babesean, 2.300.000 euroko aurrekontu-zuzkidura egin eta honako funts hauek hitzartu dira, laguntza motaren arabera banatuta:

| Laguntza mota | Aurreikusiak / deituak | | | Konprometituak | | |
|---|------------------------|------------------|------------------|----------------|------------------|------------------|
| | 2017ko funtsak | 2018ko funtsak | GUZTIRA | 2017ko funtsak | 2018ko funtsak | GUZTIRA |
| Dibertsifikazio ekonomikoa, enpresen eraketa eta garapena | 477.500 | 1.477.500 | 1.955.000 | 546.093 | 1.618.279 | 2.164.372 |
| Enpleguaren sorrera garbia | 172.500 | 172.500 | 345.000 | 30.800 | 30.800 | 61.600 |
| GUZTIRA | 650.000 | 1.650.000 | 2.300.000 | 576.893 | 1.649.079 | 2.225.972 |

Ondoren, jarduera horiei buruz txostenean jaso ziren adierazleak eta benetan lortutakoak azaltzen dira:

| | Aurreikusia | Burututa |
|--|-------------|----------|
| Nekazaritzakoak eta arrantzakoak ez diren jardueretarantz dibertsifikatzeko proiektu kopurua | 15 | 5 |
| Mikroenpresak zein enpresa txiki eta ertainak eratu eta garatzeko proiektu kopurua | 30 | 34 |
| Hitzartutako enplegu kopurua | 50 | 12 |



1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak, G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuei dagokienez (EREIN PUBLIKOAK)

2.- Araua

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2016ko abenduaren 14ko Agindua.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu horren bidez hauetarako laguntzak eman dira:

- Landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko azpiegiturak hornitzeko
- Turismoarekin lotutako kultura- eta natura-ondareko inbertsio-proiektuak, eta jendeak erabiltzeko aisia-, turismo- eta informazio-azpiegituren proiektuak bultzatzeko

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

198 eskari aurkeztu dira guztira eta horietako 82 proiekturi eman zaio baieztoko erantzuna.

Deialdi horren babesean, 5.000.000 euroko aurrekontu zuzkidura egin eta honako funts hauek hitzartu dira, laguntza motaren arabera banatuta:

| Laguntza mota | Aurreikusiak / deituak | | | Konprometituak | | |
|-------------------------|------------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| | 2017ko funtsak | 2018ko funtsak | GUZTIRA | 2017ko funtsak | 2018ko funtsak | GUZTIRA |
| Bizi-kalitatea hobetzea | 1.800.000 | 2.700.000 | 4.500.000 | 1.878.724 | 2.818.086 | 4.696.809 |
| Ondarea-Turismoa | 200.000 | 300.000 | 500.000 | 101.132 | 151.697 | 252.829 |
| GUZTIRA | 2.000.000 | 3.000.000 | 5.000.000 | 1.979.856 | 2.969.783 | 4.949.638 |

Ondoren, jarduera horiei buruz txostenean jaso ziren adierazleak eta benetan lortu zirenak azaltzen dira:

| | Aurreikusia | Burututa |
|--|-------------|----------|
| Oinarrizko zerbitzuen eta ekipamenduen ezarpenari Lagundutako proiektu kopurua | 85 | 74 |
| Landa-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko Lagundutako proiektu kopurua | 12 | 8 |



1.- Izenburua

2015-2020. aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren esparruan onartu zen LEADER eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak

2.- Araua

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2017ko urriaren 11ko Agindua.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu horren bidez hauetarako laguntzak eman dira:

- Nekazaritzaz besteko jardueretarako enpresak sortzera bideratutako laguntzak (startup).
- Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko laguntzak.
- Besteren kontura kontratatuzeko laguntzak.
- Udalerrietako oinarrizko azpiegitura eta zerbitzuak egin eta berritzeko laguntzak.
- Etxebizitzarako laguntzak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi horren babesean, 7.066.725 euroko aurrekontu-zuzkidura duena, ebazteke dago 195 proiektu laguntzeko proposamena, 7.060.632 euroko zenbatekoan (Europako LGENF funtsak ere finantzatutako zenbatekoa %80an). Honela banatzen da laguntza motaren arabera:

| Laguntza mota | Aurreikusiak / deituak | | | Konprometituak | | |
|---|------------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| | 2017ko funtsak | 2018ko funtsak | GUZTIRA | 2017ko funtsak | 2018ko funtsak | GUZTIRA |
| II. Kap. - Nekazaritzaz besteko jardueretarako enpresak sortzea (startup) | 445.000 | 195.000 | 640.000 | 95.959 | 47.263 | 143.222 |
| III. Kap. - Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsioak | 1.100.00 | 1.650.000 | 2.750.000 | 924.281 | 1.386.422 | 2.310.703 |
| VI. Kap. - Besteren konturako kontratazioak | 55.000 | 55.000 | 110.000 | 48.650 | 48.650 | 97.300 |
| V. Kap. – Udalerrietako oinarrizko azpiegiturak eta zerbitzuak egin eta berritzeko inbertsioak. | 1.247.995 | 2.002.005 | 3.250.000 | 1.788.845 | 2.423.172 | 4.212.017 |
| VI. Kap. – Etxebizitzak. | 150.000 | 166.725 | 316.725 | 139.773 | 157.617 | 297.390 |
| GUZTIRA | 2.997.995 | 4.068.730 | 7.066.725 | 2.997.508 | 4.063.124 | 7.060.632 |

Aurreikusitako helburuak eta aurreikusten direnak jasotzeko (eskabidean jasotako adierazleen arabera) hurrengoak dira:



| | Aurreikusia | Burutzeko |
|--|-------------|-----------|
| Enpresa berriak sortzeko proiektuak eta nekazaritza-jarduera dibertsifikatzekoak (Start-Up). | | |
| Sortutako enpresa kopurua. | 40 | 20 |
| Sortutako lanpostu kopuru gordina. | 40 | 20 |
| Enpresetan inbertsioak egiteko proiektuak eta nekazaritza-dibertsifikazioa. | | |
| Sortutako enpresa kopurua. | 20 | 18 |
| Hobetutako enpresa kopurua. | 70 | 40 |
| Sortutako lanpostu kopuru gordina. | 30 | 73 |
| Besteren konturako kontratazioetarako proiektuak. | | |
| Lagundutako enpresa kopurua. | 20 | 10 |
| Sortutako lanpostu kopuru gordina. | 20 | 20 |
| Udalerrietako oinarrizko azpiegiturak eta zerbitzuak egin eta berritzeko proiektuak. | | |
| Onuradun izan diren erakunde publiko kopurua | 53 | 92 |
| Lagundutako azpiegitura kopurua. | 30 | 57 |
| Lagundutako zerbitzu kopurua. | 23 | 35 |
| Etxebizitza proiektuak. | | |
| Onuradun izan diren erakunde publiko kopurua. | 1 | 0 |
| Onuradun izan diren pertsona kopurua. | 19 | 15 |
| Jasotako etxebizitza berri kopurua. | 3 | 3 |
| Birgaitutako etxebizitza kopurua. | 16 | 14 |



1.- Izenburua

Nekazaritza eta Abeltzaintzako ustategietan sasoiko lana egiten duten pertsonen ostatueterako laguntzak

2.- Araua

Apirilaren 17ko 62/2007 Dekretua, nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko lana egiten dutenentzako ostatueterako diru-laguntzak arautzen dituena.

2017ko maiatzaren 17ko agindua, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko lana egiten dutenentzako ostatuak diruz laguntzeko deialdia egiten baita 2016. ekitaldirako, apirilaren 17ko 62/2007 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan sasoiko lana egiten dutenentzako ostatuak eraiki, egokitu, hobetu edo ekipatzeko diru-laguntzen erregimena arautzea, ostatu kolektiboen eta pribatuen sarea handitu eta hobetzeko eta ostatu-baldintza duin batzuk bermatzeko, betiere saioko langileak gure herrialdean diren bitartean integratzera zuzenduta. Hori guztia, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunaren Saila mahaiburu zuen Erakunde Arteko Mahaiak 2013ko apirilaren 17an onartu zuen Sasoiko Langileen Arretarako 2013-2016 III. Plan Integralean onartu zuenarekin bat etorritz eta lerro berarekin jarraitzeko asmoa jaso da 2017ko uztailaren 10ean onetsitako IV. Planean ere.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko ekitaldian 2 ostatu pribatu berri eraiki eta egokitzeko inbertsioak onartu dira, 34 plaza sortuz, onartutako laguntza 30.042,33 eurokoa izan zen, biak ere Arabako Errioxako eskualdean.

Aurreikusitakoa kontuan hartuta, betetze maila plaza eta ostatu kopuru osoaren %65 eta %40koa izan da, hurrenez hurren.

Jarraitu beharra dago existitzen diren ostatuak hobetzen eta plaza berriak eraiki daitezkeen sustatzen sasoikako langileen beharrianak duintasunez bete ahal izateko, hori baita euskal nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen eskaria.



1.- Izenburua

Animalien ongizatea

2.- Araua

100/2012 Dekretua, maiatzaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko esnetarako behien abeltzaintza-ustiategietan abereen ongizatea hobetzeko laguntzei buruzkoa.

2017. urterako laguntzen deialdia egin zen Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretarako sailburuak 2017ko irailaren 27an eman zuen Aginduaren bidez.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Instalazioetan ekoizpenerako neurri eta metodo egokiak jar daitezela sustatzea, araubide europarrak agintzen dituen baldintzak betetzeko eta animaliek ustiategietan izan behar duten ongizatearen gaineko eskakizunak inplementatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Horretarako deialdia egiten den seigarren urtean, 5 onuradun izan dira, eta, guztira, 5.203,83 € eman dira laguntzetan. (3 gizon eta 2 emakume).



1.- Izenburua

Nekazaritza-ekoizleen elkarteak eta haien batasunak

2.- Araua

13/2004 Dekretua, urtarrilaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzkoa. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak 2017ko irailaren 13an emandako Aginduaren bidez deitua izan da 2017. urterako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da egituratze produktiboa eta komertziala lortzea, Nekazaritzako Ekoizleen Elkarteen bidez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lehen aipatutako Dekretuaren bidez, NEEak Nekazari-Ekoizle elkarteak –erregistratzeko/ onartzeko arauadia ezarri zen; 2017an zehar 2 taldek jaso dute laguntza, guztira 31.685,52 eurotan, funts propioen kontura. Halaber, Landa Garapenarako Europako Nekazaritza Funtsak osatu du kopuru hori, 126.742,08 €-tan.



1.- Izenburua

Nekazaritza-sektoreko lanbide-elkartek (Elkartek Programa)

2.- Araua

233/2011 Dekretua, azaroaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialei zuzendutako laguntzei buruzkoa, 2017ko irailaren 27ko Aginduaren bidez deituak 2017. urterako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Nekazaritzako elkarte profesionalen eta enpresa-elkarteen jarduerak eta ekimenak sustatzen dira, haien interesen ordezkapena eta defentsa bideratzeko, eta nekazaritza sektoreko jarduerak betetzeko baldintzak hobetzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntzen ildo hau urte bat baino gehiagotan izan da indarrean, eta egiaztatu da finkatu egin dela nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreetako egitura jakin batzuetan. Nagusiki, elkarte profesionalek egindako lanaren bidez gertatu da hori.

Elkarte horiek lankidetzaren estuan dihardute aspaldian Sailarekin azken horrek bultzatzen dituen jarduera jakinak aurrera eramateko, eta laguntza handia ematen dute sektore jakinetan krisi-garaian hartu behar diren neurri garrantzitsuak ezartzeko. Guztira 19 espediente izapidetu dira 2017. urtean Nekazaritza eta Abeltzaintzaren arloan, eta 259.647,80 € bideratu dira horretarako.



1.- Izenburua

Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak

2.- Araua

Agindua, 2017ko irailaren 27koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako 2017ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia egiten duena

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin egiten duten elkarrizketa soziala bideratzeko lanak laguntzen dira. Elkarrizketarako sortu diren foroetan gauzatzen dira lan horiek, euskal nekazaritza-sektoreari eragiten dioten gaiak lantzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Euskal Landa Ingurunea Garatzeko 1997-2000 Euskal Plana onartu ondoren, eragile ekonomiko eta sozialekin elkarrizketan aritzeko foro batzuk sortu dira. Foro horiek sortzeko baldintza izan da izaera sindikala duten nekazaritza-elkarte profesionalak laguntzak emateko irizpideak berritzea. Hori horrela, administrazioarekin egiten dituzten elkarrizketa-jarduerek osatzen dute, elkarte horiei laguntza emateko aintzat hartu behar den irizpideetako bat, haien bertaratzea eta partaidetza bultzatzeko. Aurten, sektorean dauden 5 elkarte profesionalak dagozkien espedienteak izapidetu dira, eta laguntzen zenbatekoa 201.000,00 €-koa izan da.



1.- Izenburua

Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa nekazaritzan eta ingurumenean

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko martxoaren 8koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena. Haren bitartez, nekazaritza-produkzio jasangarriko tekniken bidezko laborantza estentsiboaren dibertsifikaziorako nekazaritza eta ingurumeneko diru-laguntzaren deialdia egiten da. Teknika horiek EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan aurreikusita daude.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hori baliatuz, eta neurri honen bitartez, laborantza estentsiboen dibertsifikazioa sustatu nahi da, nekazaritza-produkzio jasangarriko teknikak erabilia, EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan onartutakoaren eta jasotakoaren arabera. Neurri honen helburuak dira, batetik, baliabide naturalen jasangarritasuna eta arrazoizko aprobetxamendua sustatzea eta, bestetik, ingurua babestea. Horretarako, ustiapenen titularren errentak mantendu edo hobetuko dira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aipatutako aginduaren bidez, 2017. urterako, laborantza estentsiboen dibertsifikazioa babesteko asmoz, bigarren ekitaldirako deialdia egin zen, 150 ustiapenen gaineko espedienteak izapidetu ziren, eta laguntzen zenbateko osoa 1.082.430,00 €-koa izan zen. (funts propioak 270.607,80 € eta Feader funtsak 811.822,20 €).

2017ko deialdian, 1.200.000,00 €-ko laguntza-bolumena ezarri zen. Kopuru horretatik 300.000 € Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak finantzatutako zatian sartzan ziren eta gainerako 900.000,00 €-ak erakunde ordaintzaileak finantzatutako zatian.

Deialdia amaitu ondoren, 2017ko deialdian 150 eskarik jaso dute laguntza, eta guztira honakoa izan da emandako laguntzen zenbatekoa:

- EAEk ordaindutako zenbatekoa: 270.607,80 €
- FEADERek ordaindutako zenbatekoa: 811.822,20 €

Eskatzaile-kopuruari dagokionez, 150 eskatzailek jaso dute laguntza hau, guztira 323 izan zitezkeela aurreikusi ondoren (erremolatxa eta patata laborantza nagusiak soilik hartzen badira kontuan, 0,46ko ratioa).

Kasu honetan, aurreikusitakoa baino % 10 gutxiago bete da, uste baino eskatzaile gutxiagok hartu baitute laguntza.



1.- Izenburua

Minimis untxi-ustiategientzako

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko ekainaren 28koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira EAEko untxi-ustiategientzako 2017rako minimis araubideko laguntzak.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea da untxi-ustiategiei laguntzea, azken aldi honetan ustiategi horiek dituzten zailtasunak arintzeko eta haiei errekuaritzen laguntzeko helburuarekin.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulak minimis laguntzak nekazaritzako-sektoreari aplikatzeko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1408/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako minimis araubidearen babespean ematen dira laguntza hauek.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lehen aipatutako aginduraren bidez, ustiategi hauentzat laguntzak ezarri ziren eta, ekitaldi honetan 24 ustiategien espedienteak izapeditu ziren, laguntzen zenbatekoa, guztira 73.100,00 €koa izan da. (6 elkarte, 15 gizon eta 3 emakume)



1.- Izenburua

Arraza garbien abeltzain elkarteak

2.- Araua

240/2017 DEKRETUA, urriaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzain-elkarteei diru-laguntzak emateko modua arautzen duena

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzaintza-elkarteentzat pizgarri izatea, elkarteok liburu genealogikoen kudeaketarekin lotutako jarduera berriak gara ditzaten. Zehazki, ekainaren 2ko 81/2015 Dekretuak (Euskal Herriko abere-arraza autoktonoak kontserbatu, hobetu eta sustatzekoak eta animalia-arrazak sustatzen dituzten entitateak arautzekoak) ezarritako eskari berrien ondoriozko jarduerak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aipatu Dekretu horren bidez, arraza garbien abeltzaintza-elkarteentzako laguntzak ezarri ziren. Ekitaldi honetan, zehazki, 11 elkarteri buruzko espedienteak izapidetu dira, eta laguntzen zenbatekoa, guztira, 350.000,00 eurokoa izan da. Elkarteentzat pizgarri izan dela argi dago, 2018. urterako diruz lagun daitekeen gastuaren eskaria nabarmen areagotu baita 2017ko datuen aldean. Izan ere, laguntza horiek beren arrazak zaindu eta hautatzen aurreratzeko bidean laguntzen diela ikusten dute elkarteek, eta proiektu berriak garatzera animatzen dira.



1.- Izenburua

| |
|--|
| Arrantza eta Akuikultura iraunkorra sustatzeko Programa |
|--|

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2017ko irailaren 28koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorerako 2017ko diru-laguntzetarako deialdiaren oinarriak. |
|---|

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorerako 2016rako laguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko Europako Itsas eta Arrantza Funtzari buruzko 508/2014 zenbakiko Erregelamenduan (EB) aurreikusten dira. |
|---|

Laguntzak hiru eremutan taldekatzen dira:

- Arrantza jasangarria (Berrikuntza; aholkularitza-zerbitzuak; ikerlarien eta arrantzaleen arteko elkarteak; giza kapitala sustatzea, enplegua sortzea eta elkarrizketa soziala; arrantza gazteentzako hasierako laguntza; arrantza-ontzietan edo banako ekipoetan egindako inbertsioen segurtasuna eta osasuna; arrantza-jarduerak aldi baterako geldiaraztea; arrantza-jarduerak behin betiko geldiaraztea; arrantzak itsas ingurunean duen eragina mugatzea eta arrantza espezieen babesera mugatzea; itsasoko baliabide biologikoen kontserbazioarekin lotutako berrikuntza; itsas ekosistemak eta biodibertsitatea babestea eta berreskuratzea, eta arrantza-jarduera jasangarrien esparruko konpentsazio-erregimenak. Itsasoko hondakinen bilketa; itsas ekosistemak eta biodibertsitatea babestea eta berreskuratzea, eta arrantza-jarduera jasangarrien esparruko konpentsazio-erregimenak; eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketa arintzea. Ontziko inbertsioak, kontu-ikuskapenak eta azterketa energetikoak; eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketa arintzea. Motorrak ordeztzea edo modernizatzea; balio erantsia, produktuen kalitatea eta nahi gabe hartutako harrapakinen erabilera; arrantza-portuak, ontziratze-tokiak, lonjak eta ainguralekuak.
- Ekoizpen- eta merkaturatze-planak eta –neurriak
- Akuikultura jasangarria. Berrikuntza, Akuikulturako inbertsio produktiboak: ekoizpena dibertsifikatzea, instalazioak hobetzea eta modernizatzea, produktuen kalitatea hobetzea, putzuak edo urmaelak leheneratzea. Akuikulturako inbertsio produktiboak: baliabideen efizientzia, uren eta kimikoen erabilera gutxitzea, birziklatzeko sistemak. Akuikulturako inbertsio produktiboak: efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriaren erabilera areagotzea. Akuikultura-ustiategietarako kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak. Giza kapitala eta sareko lana sustatzea. Akuikultura-ekoizpeneko eremuen ahalmena handitzea. Akuikultura jasangarria lantzen duten akuikultura-enpresak sustatzea. Abereen osasunari eta ongizateari buruzko neurriak.



4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Berrikuntza: itsasoko baliabide biologikoen kontserbazioarekin lotutako 4 proiektu bultzatu dira.

Arrantza-ontzietan edo banako ekipoetan egindako inbertsioen segurtasuna eta osasuna: arrantza-ontzietan 38 inbertsio proiektu onartu dira.

Arrantza-jarduerak behin betiko geldiaraztea: 4 arrantza itsasontzi 329,73 GTz, desguazatzea aprobata da (2 inguraketa-itsasontzi eta 2 arte xehe-itsasontzi) arrantza-ontzi ondoratzea onartu da (329,73 GT).

Arrantzak itsas ingurunean duen eragina mugatzea eta arrantza espezieen babesera mugatzea: 3 arrantza-ontzietan inbertsioak egitea onartu dira.

Arrantza portuetan, 5 inbertsio proiektu onartu dira.

Eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketa arintzeari lotutako inbertsio proiektu bat onartu da.

Ekoizpen- eta merkaturatze-planak eta –neurriak. Arrantza produktuen ekoizleen erakunde baten Plana onartu da eta Plan hori abian jartzeko egin diren gastuak ere bai.

Arrantza produktuen merkaturatzeko 10 proiektu onartu dira.

Akuikulturaren arloan, berrikuntza, garapen teknologikoa eta jakintza teknikoaren transferentzia sendotzeko 4 proiektu onartu dira.

Bestalde, amuarrain produkzioarako akuikultura instalazio berri baten proiektua onartu da, eta, long-line sistemetan inbertsio proiektu bat ere onartu da



1.- Izenburua

Arrantza sektoreko elkarte profesionalak (Elkarteak Programa)

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 27koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuan ezarritako esparruaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako 2017ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia («Elkarteak» Programa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Arrantza sektoreko elkarte profesional eta enpresen jarduerak eta ekimenak sustatzea, euren interesak ordezkatu eta babestu eta arrantza sektoreko jarduerak garatzeko baldintzak hobetzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza lerro hori ekitaldi batzuetan aplikatu ostean, arrantza sektorearen egiturak sendotzen dira erakunde profesionalak egindako lanari esker batez ere. Erakunde horiek ari dira lankidetzan sailarekin berorrek bultzatutako zenbait jardueratan, baita sektore batzuen krisialdian egin beharreko neurri garrantzitsuetan ere. 2017ko ekitaldian 8 espediente izapidetu ziren, hau da, 180.370 € laguntzetan.



1.- Izenburua

Gaitzeko beka programa Pasaia, Ondarroa eta Bermeoko Zentroetan

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko azaroaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez beka-deialdia egiten baita nautika- eta arrantza-arloko ikasketak egiteko 2017-2018 ikasturtean honako ikastetxe hauetan: Blas de Lezo Pasaiaiko Itsas Arrantzarako Ikastetxean; Bermeoko Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketako Eskolan, eta Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantzarako Lanbide Heziketako ikastetxean.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Arrantzarekin zerikusia duten sektoreetako langileen trebakuntza-politika egokiari eustea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017an, 122 beka eman dira guztira. Nautikari eta arrantzari buruzko ikasketak Blas Lezo - Pasaiaiko Itsas Arrantzarako Ikastetxean egiteko (goi mailako heziketa zikloa: 17, Erdi mailako heziketa zikloak: 10. Bermeoko Itsas-Arrantzako Prestakuntzarako Eskolan (goi mailako heziketa zikloa: 15, Erdi mailako heziketa zikloak: 22; Kostako patroiz balioaniztuna 5) Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantzarako Lanbide Heziketako ikastetxean (goi mailako heziketa zikloa: 32, Erdi mailako heziketa zikloak: 4, Kostako patroiz balioaniztuna:17).



1.- Izenburua

| |
|--|
| Tokiko garapen parte-hartzailea |
|--|

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2017ko irailaren 28koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorerako 2017ko diru-laguntzetarako deialdiaren oinarriak. |
|---|

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|--|
| Programa honen xedea da Itsas Garapen Elkarte Tokiko Ekintza Taldeari (aurrerantzean, ATET) Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak onartutako partaidetzazko toki-garapenaren estrategien (PTGE) babespean gauzatutako proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egitea. |
|--|

Gainera, diruz lagundu daitezkeen proiektu eta jarduketek jarraian zehazten diren helburu hauetakoren bat lortzen lagundu beharko dute:

- a) Arrantzako produktuen balioa handitzea, enplegua sortzea, gazteak erakartzea eta berrikuntza sustatzea arrantzaren eta akuikulturaren produktuen hornidura-katearen fase guztietan.
- b) Hauetan laguntzea: arrantza-sektorearen dibertsifikazioa merkataritza-arrantzako sektorean edo hortik kanpo, ikaskuntza iraunkorra eta arrantza- eta akuikultura-guneetan enplegua sortzea.
- c) Tokiko ekonomiaren dibertsifikazioan laguntzea, lehentasunez arrantza eta itsasoa baliabideei atxikitako jarduera ekonomiko berrietarantz.
- d) Arrantza-guneetako arrantza, akuikultura eta itsasoaren kultura-ondarea sustatzea.
- e) Arrantza-komunitateen papera tokiko garapenean eta arrantza-baliabideen tokiko itsas-jardueren gobernamentua indartzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

| |
|--|
| Guztira, 36 dirulaguntza onartu dira, eta honela banatzen dira |
|--|

Inbertsio produktiboak: 24

Enplegua sortu: 8

Inbertsio ez produktiboak: 4

Aurrekontu programaren indikadorei begira, hona hemen lortutako emaitzak:

- 1.1. Sektorearen irudia hobetzea (jarduketan kopurua 1).
- 1.2. Arrantza-produktuak sustatzea, bultzatzea eta merkaturatzea (jarduketan kopurua 3).
- 1.4. Arrantza-sektoreko emakumearen baldintzak hobetzea (jarduketan kopurua 1).
- 1.6. Arrantza-sektorea dibertsifikatzea, sektoreko know-how-arekin zerikusia duten jarduera berritzaileen bidez (jarduketan kopurua 4).



2. Arrantza-herrien jarduera ekonomikoadibertsifikatzea:

2.1. Dibertsifikatzea itsasoko eta arrantzako baliabideekin zerikusia duten jarduera berriak ezarrita (proiektuen kopurua 1).

2.2. Itsasoko eta arrantzako ondarearen baliabideak berreskuratzea, kontserbatzea, nabarmentzea eta horiek aprobetxatzea (proiektuen kopurua 3).

2.3. Itsasoari lotutako ekimen turistikoak sortzea eta horiek modu jasangarrian garatzea (proiektuen kopurua 4).



1.- Izenburua

Nekazaritzako elikagaien sektoreko elkarte profesionalak (Elkarteak Programa)

2.- Araua

Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai, arrantza eta nekazaritzako sektoreetako enpresa- eta lanbide-elkarte zein federazioentzako laguntzak arautzen ditun azaroaren 15eko 233/2011 Dekretua.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2017ko irailaren 27ko Agindua.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Nekazaritzako elikagaien elkarte profesionalen eta enpresa-elkarteen jarduerak eta ekimenak sustatzea, euren interesen ordezkartza eta defentsa egiteko, bai eta sektore horren jardun-baldintzak hobetzeko ere.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza-ildo hau hainbat ekitalditan aplikatu ondoren ikus daiteke nekazaritzako elikagaien sektoreko egiturak sendotu egin direla, nagusiki elkarte profesionalak garatu duten lanari esker. Erakunde horiek Sailarekin aktiboki lankidetzan ari dira Sailak sustatutako zenbait jardunetan, baita zenbait sektoreren krisialdietan gauzatu beharreko neurri garrantzitsuetan ere. 2017ko ekitaldian, elikagaien sektorean diharduten 17 entitate izan dira onuradun, eta laguntzetara bideratutako zenbatekoa 100.000 € izan da.



1.- Izenburua

Nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzak

2.- Araua

Agindua, 2017ko uztailaren 19koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, nekazaritzako eta jateko produktuen kalitate-araubideetarako laguntzen deialdiko oinarriak onartzeko dena, 2017ko ekitaldirako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: nekazaritza ekoizpenaren eta produktuen kalitatea hobetzea.

Produktu horiek elikakatean hobeto sartzen lagunduko da funtsean neurri horren bidez; horretarako, gure ekoizpen-sektorearen eginkizuna sustatu behar da eta, neurri txikiago batean, transformatzailearena, elikakateari balio erantsia eman dakion. Halaber, ziurtatutako eta aitortutako kalitatea duten euskal produktuak hobeto posizionatu behar dira merkatuetan, erkidegokoetan zein kanpokoetan, eta sustatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizleek eta produktuek parte-hartze handiagoa izan dezaten Euskadiko kalitate bereizi eta ziurtatuaren estrategian. Hori dela-eta, gorago aipatu aginduan laguntza lerro bi ezartzen dira:

- M03.1. Nekazariak kalitate-araubidean lehen aldiz parte hartzeko laguntza.
- M03.2. Informazio- eta promozio-jardueretarako laguntza (barne-merkatuko ekoizle taldeek ezarritako jarduerak).

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Eskaeren % 80k baino gehiagok ezarritako betekizunak betetzen dituztela erabaki da.

M03.1 neurriko eskaerak % 37 gehitu dira 2016arekin alderatuzi, batez ere sagardo naturalaren ekoizle berrien laguntzarekin, ("DOP EUSKAL SAGARDOA / SIDRA NATURAL DEL PAIS VASCO" izenekoan inskribatutakoak), laguntza programan sartu baitira.

M03.2 neurriko eskaerak % 20 gehiago izan dira 2016arekin alderatuz, ia eskatzaile kopuru berarekin; hori gertatu da laguntzaren portzentajea handitu delako.

Aurrekontuaren % 50 erabili zen 2016an, eta 2017an % 63 gainditu du. 2018an gehiago erabili ahal izateko, EBri eskatu zaio programaren ondorengo urteetan laguntzaren ehunekoak gehitzeko, 50.000 €tik 150.000 €ra pasatuz, eta, antza, honek aurrekontuaren exekuzioaren hazkundera zuzenean eragingo du.

Gure ustez, gizarte erabilgarritasuna handia da eta handitzen ari da, izan ere, urtero gehitzen da eskatzaile kopurua eta kalitate bereizi eta ekologikoaren produkziara dedikatutako unitate kopurua. Gero eta eskari handiagoa dago eta sustapena laguntza ikaragarria da, kalitateko produktuak hobeto ezagut daitezten.



1.- Izenburua

«Basque Label Harategiak» marka berrira atxikiko diren harategi tradizionalentzako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 27koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, «Basque Label Harategiak» marka berrira atxiki diren harategi tradizionalei minimis-araubidean jasotako diru-laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onartzekoa, 2017ko ekitaldirako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: Harategi tradizionalen sektorea egituratzea, harategiok «Basque Label Harategiak» katearen marka garatzeko ezarritako eskakizun berrietara egokitu daitezen.

Harategi tradizionalak bultzatu nahi dira, «Basque Label Harategiak» marka garatu eta harategi tradizionalen irudia eta kontzeptua indartuz, Euskal Autonomia Erkidegoko kalitatezko produktuen alde eta lehen sektorearekin duten konpromisoa balioztatze aldera. Lehen sektorearekin eta Eusko Labelen behi-haragiko proiektu instituzionalarekin konprometitutako harategi-kopurua handitzea da ekintza estrategiko honen helburua. Izan ere, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan dauden harategi guztien artean % 10 baino ez dira.

Laguntza horiek bete egin beharko dute 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Araudian (EB), Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoan, ezarritako minimis-araubidea.

Horretarako, aipatu Aginduan bi laguntza-lerro ezarri dira:

- a) Oinarrizko ekipamenduak eskuratu eta hobetzea, seinaleak egokitzeko (erakustokiak, kartelak, etab.). Ezarritako laguntzaren zenbatekoa gehienez ere 5.000 eurokoa da.
- b) Ekipamendu osagarriak eraiki, eskuratu eta hobetzeko beste obra txiki batzuk. Ezarritako laguntzaren zenbatekoa egindako inbertsioaren % 50ekoa da. Laguntza gehienez ere 10.000 eurokoa izango da.

Onuradun bakoitzeko laguntzaren zenbatekoa gehienez ere 15.000 eurokoa izango da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren hasierako aurreikuspenetan, 50 eta 75 eskari artean babestea eta 500.000,00 €-ko aurrekontua ezartzea planteatu zen.

Emaitzak ikusita, eskari guztiak babestu dira, hau da, 21 harategi, eta guztira 210.955,00 euroko laguntza eman da. Partaidetza eta betearazpen-maila, beraz, baxuak izan dira, batez ere programa



irailaren amaieran aurkeztu eta argitaratu zelako, eta, ondorioz, ez zelako hura ezagutarazteko denbora nahikorik egon.

Gizartean izan dezakeen erabilera nabarmena dela uste dugu. Horrenbestez, urtero eskari-kopurua igotzen joango dela espero dugu.

Geroz eta eskari gehiago dago, eta sustapen-arloan laguntza garrantzitsua da kalitatezko produktuen ezagutza eta posizioa hobetzeko.



1.- Izenburua

Programa Lehiatu Berria

2.- Araua

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2017ko ekainaren 28ko aginduaren bidez deitu ziren. Agindu horrek nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko 2017ko deialdiaren oinarriak onartzeko da. (LEHIATU BERRIA programa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Elikagaigintzaren sektore guztiei zuzendutako laguntza-programa bat da. Helburua da itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak ematea, nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantza eta akuikulturako produktuen eraldaketa eta merkaturatzearen arloko inbertsioak egiteko.

Hauek dira LEHIATU BERRIA programaren edukiak:

- LEHIATU BERRIA II. kap. – nekazaritza- eta elikagai-industrirentzako laguntzak jasotzen ditu.
- LEHIATU BERRIA III. kap. – basogintza-industriarentzako laguntzak jasotzen ditu.
- LEHIATU BERRIA IV. kap. – arrantza-industriarentzako laguntzak jasotzen ditu.
- LEHIATU BERRIA V. kap. – aurreko kapituluetan koka ezin daitekeen elikagai-industriarentzako laguntzak jasotzen ditu.

Diruz lagun daitezkeen inbertsioak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruaren barruan jarrita dauden edo jarriko diren establezimenduetan egin beharko dira. Diruz lagun daitezkeen inbertsioak ezin dira hasita egon eskaera aurkezten den unean, obra zibileko proiektuaren ordainsaria eta makineriaren arloko ordainketak izan ezik.

Gainera, inbertsioa gauzatzeko ekoizpen-establezimendu berri bat egiteko obra zibila egingo bada, inbertsioa gauzatzeko lursailak edo higiezinak eduki behar dira jabetzan, errentan edo usufruktuan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017an, 144 inbertsio-proiekturi eman zaie laguntza programa honetan, egur-zerrategien (6 proiektu), nekazaritzako produktuen ekoizpenaren (110 proiektu) eta beste elikagai batzuen sektoreetan (7 proiektu).

Arrantzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeari dagokienez, Europako FEMP funtsen kofinantzaketa dute, eta aurkeztu diren 23 inbertsio-proiektuetatik 21 onartu dira.



Zuzeneko inbertsioa 90 milioi eurokoa da, eta eragindakoa, 110 milioitik gorakoa.

Elikagai Industrien Erregistroak 1.300 establezimendu dituela kontuan hartuta (ia erdia ardogintzaren sektoreko enpresak dira, eta ez dira programa honetan sartzen), sektorean eragin handia izango du.



1.- Izenburua

Lehiatu Sustapena Programa

2.- Araua

Irailaren 23ko 179/2014 Dekretuak, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzei buruzkoak, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak EAetik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzen erregimena ezartzen eta arautzen du (LEHIATU SUSTAPENA programa).

AGINDUA, 2017ko urriaren 18koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, aipatutako Dekretuaren bidez araututako diru-laguntzak emateko 2017ko deialdia egiteko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

LEHIATU SUSTAPENA programak basogintza-, nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak sustatzeko diru-laguntzen erregimena ezartzen eta arautzen du, ekintzat indibidualak eta sustapen-programak hartzen ditu diruz lagun daitezkeen ekintza gisa.

- a) Jarduera hauek hartzen dira ekintza indibidualtzat: merkataritzako azoka edo lehiaketa profesionaletan eta internazionaletan erakusle gisa parte-hartzea, banako edo taldeko standetan produktuak aurkeztuz merkataritza-jarduerak egiteko; eskatzailea azoka profesionalak eta internazionalak bisitatzera joatea; Estatuz kanpoko merkatuetan produktuak zuzenean aurkezteko misioak, adibidez, enpresa eskatzailearen produktuak aurkeztea eta/edo dastatzea, kanpoko merkatu horrekin merkataritza-harremanak sendotzeko eta produktuak merkatu horretara esportatzeko; alderantzizko misioak, baldin eta EAera soilik mugatzen badira, hau da, atzerriko erosleak edo preskriptoreak gonbidatzea EAEko ekoizpen-plantak bisitatzera; Estatutik kanpoko merkatuetako salmenta-puntuak sustatzeko ekintza puntualak eta bereziak, hain zuzen ere, produktua publizitatzea eta dastatzea kontsumitzaileen oniritzia lortzeko; eta enpresaren irudiari eta produktuei buruzko material dibulгатiboa, katalogoak eta ikus-entzunezkoa sortzea, gutxienez atzerriko hizkuntza batean.
- b) Sustapen programak: Sustapen-programetan, plan edo programa integral bat prestatu behar da, aurreko paragrafoan aurreikusitako ekintza indibidualen artetik gutxienez sei jarduera burutzeko hiru herrialdetan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016an, diru-laguntzen ildo honetan 75 proiektu onartu dira, hurrengo sektore hauetan: ardogintza eta ardoen ontzea (proiektuen % 75), bestelako industriak (% 20) eta arrantza eraldatzeko industria (% 5).

Enpresek promozioan egindako zuzeneko inbertsioa 0,9 milioi eurokoa da, eta eragindakoa, 1,20 milioitik gorakoa.



1.- Izenburua

Fruta eta barazki ekoizleen erakundeak

2.- Araua

30/2010 Dekretua, urtarrilaren 26koa, fruta eta barazki ekoizleen diru-laguntzak erregulatzekoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Fruten eta barazkien sektoreari buruzko Erkidegoko arauditik deribatutako fruta eta barazki ekoizleentzako diru-laguntzak ematea. Diru-laguntza hauek produktuen promozioarekin lotuta daude.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko ekitaldian, bi enpresak jaso zuten programa honen bidezko diru laguntza, guztira, 269.415,07 eurokoa, Europako FEAGA funtsak eta EAeko aurrekontuetako funtsak kontuan hartuta. Enpresa hauek EBk onartutako erakundeak errekonozitzeko sistema betetzen dute.



1.- Izenburua

Hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko MAB programa

2.- Araua

227/2014 DEKRETUA, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko mahastigintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko, Europaren laguntza-neurriak aplikatu eta garatzeko dena.

Agindua, 2016ko abenduaren 26koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako zein -egintzetarako laguntzen deialdia, 2017. urterakoa, egiteko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko MAB programak Europar Batasunak mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko neurrien bidezko diru-laguntzak ezartzen eta erregulatzen ditu (MAB), hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntzaren 2017-2018 FEAGA aplikazio aldian, 36 programa onartu dira, eta guztira 7.862.500 euro eman dira laguntzetan.



1.- Izenburua

GAUZATU INDUSTRIA programa, oinarri teknologikoa duten ETEak edota ETE berritzaileak sortzen laguntzekoa, etorkizunerako lehiakortasun-estrategia gisa, enplegua sortzen duen inbertsioa bultzatzen duena

2.- Araua

Agindua, 2017ko maiatzaren 31koa (EHAA, 2017/06/09koa, 109. zk.)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aurrerakin itzulgarriak emango zaizkie gutxienez 120.000 euroko inbertsio onartua duten proiektuei eta, aldi berean, gehienez 24 hilabeteen enplegua mantentzen eta/edo sortzen dutenei.

Diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 35erainoko aurrerakin itzulgarriak izango dira laguntzak.

1.- Laguntza hauek lortu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan inbertsio-proiektuak egiten dituzten ETEek:

- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa txikientzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 35eko aurrerakin itzulgarriak.
- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa ertainentzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko aurrerakin itzulgarriak.
- Enpresa berritzaile txikientzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko aurrerakin itzulgarriak.
- Enpresa berritzaile ertainentzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 25eko aurrerakin itzulgarriak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 42

Eragindako inbertsioa: 94.396.026,61 euro

Mantendutako lanpostuak: 1.399 Onartutako lanpostuak: 471

Onartutako aurrerakin itzulgarriak: 22.556.959,73 euro

EAEko ETEek jarraitzen dute teknologiarako edota berrikuntzarako inbertsioak egiten, eta horrek eragina du gure ekonomiaren aktibazioan. Hazkundera neurritsua da, baina helburu bera dute; hau da, lehiakorrak izaten jarraitzea, eta egun dauden lanpostuak mantentzea eta berriak sortzea. Programa ona da eta ETEen beharrianak betetzen ditu; hau da, alternatiba bat da finantza-erakundeei dagokienez.



42 enpresa-proiekturi lagundu zaie (aurreikusitako 50 proiektuetatik %84); proiektu horien bidez, 94,61 milioi euro inbertitu dira (aurreikusitako 100 milioietatik %94,61), eta 471 lanpostu sortu (aurreikusitako 500 lanpostuetatik %94,2).

Programak oinarri teknologikoko enpresak eta enpresa berritzaileak sustatzen ditu; hortaz, baita garapen teknologikoa eta berrikuntza ere. EAEn dagoen azpiegitura teknologikoa, Teknologiaren Euskal Sarearen bidez, funtsezkoa da era honetako enpresak sortzeko. Era berean, halako elkarrekikotasun-harremana sortuko da, ezen oinarri teknologikoko enpresak teknologia-eskatzaile aditu bihurtuko baitira; horrela, egokitu egingo dira eskaintza teknologikoaren zerbitzuak.

Bestalde, enplegua sortzea edo mantentzea bultzatzen du; hori dela eta, eragina du ekonomiaren parametro garrantzitsuetako batean.



1.- Izenburua

INDARTU PROGRAMA (Enplegua sortzeko inbertsio produktiboa egingo duten enpresentzako diru-laguntzen programa, Nerbioi itsasadarraren ezkerrialdea eta Oiertzualdea sustatzeko)

2.- Araua

Agindua, 2015eko uztailaren 28koa (2015-09-04ko EHAA, 168. zk.)

Ebazpena, 2017ko apirilaren 7koa (2017-04-26ko EHAA, 79. zk.)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Nerbioi itsasadarraren ezkerrialdea eta Oiertzualdea sustatzeko, enplegua sortzeko inbertsio produktiboa egingo duten enpresentzako diru-laguntzen programaren nondik norakoak garatu beharra dago. Honako hau da xedea: lurralde-erakunde diskriminazio positiboko ahalegin bat ezartzea - dela krisi ekonomikoak eragin handiagoa izan duelako, dela garapena eragozten duen egiturazko hondatze-egoeran daudelako-, langabezia-egoera larritasun handienarekin nozitzen ari diren eskualde jakin batzuetara bideratuta.

Laguntza jaso dezakeen inbertsioak agindu honetan aurrez ikusitako diru-laguntzak eskuratu ahal izateko (itzulgarria ez den % 10ekoa), inbertsioa ezin izango da hasi eskaera aurkezteko data baino lehen, eta data horretatik aurrera egin beharko da, gehienez ere hurrengo bi urte naturaletan, bere ezaugarrien eta enpresa-planen arabera; horrez gain, betekizun hauek bete beharko ditu:

- a) Enpresa handiek, gutxienez, 3.000.000,000 euroko inbertsio onartua egin beharko dute, eta, gutxienez, 20 lanpostu garbi sortu beharko dituzte; ETEek, aldiz, gutxienez 750.000,00 euroko inbertsio onartua egin beharko dute, eta gutxienez 5 lanpostu garbi sortu beharko dituzte. Enpresa hauen inbertsioak ere onartuko dira: aurreko paragrafoan adierazitako gutxieneko inbertsio onartura iritsi ez arren, gutxienez 100 lanpostu sortzen badituzte (enpresa handien kasuan) edota gutxienez 25 lanpostu garbi sortzen badituzte (enpresa txiki eta ertainen kasuan).
- b) Enpresaren baliabide propioak, diru-laguntzak kanpoan utzita, gutxienez laguntza jaso dezakeen inbertsioaren zenbatekoaren % 25 izan beharko dute.
- c) Kontuan hartu beharreko enplegu-sorkuntza zein inbertsioak erakunde juridiko bakarrak egin beharko ditu, eta, enpresa-taldeen kasuan, % 100eko akzio-partaidetzarekin, zenbait produkzio-zentro badituzte, arau honetako irizpideak betetzen dituzten eta inbertsioen xede diren produkzio-zentroetan edo produkzio-zentroan baino ez.
- d) Enpresa onuradunek bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa oinarritu beharko dute.



Diru-laguntzek gehieneko muga izango dute; izan ere, ezin izango dira 3.000.000,00 eurotik gorakoak izan enpresako.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 10

Eragindako inbertsioa: 21.561.814,44 euro

Mantendutako lanpostuak: 504 Onartutako lanpostuak: 75

Emandako diru-laguntza, itzulgarria ez dena 2.018.004,74 euro.

Hirugarren deialdiak bigarrenaren onarpena mantendu du lagundutako enpresa kopuruari dagokionez, nahiz eta intentsitate gutxiago izan inbertsioan eta lana sortzean; horrela egiaztatuta geratu da Europar Batasunak behartsutzat jotako aldeek badutela bidea enpresa-proiektuak erakartzeko, aberastasuna eta enplegua sortuko duten proiektuak, alegia.

10 enpresa-proiekturi lagundu zaie (aurreikusitako 5 proiektuetatik %200); proiektu horien bidez, 21,56 milioi euro inbertitu dira (aurreikusitako 70 milioietatik %44), eta 75 lanpostu sortu (aurreikusitako 100 lanpostuetatik %75).

Programa honek eragina du parametro makroekonomikoetan, hobetu egiten baititu, batez ere enplegua zuzenean zein zeharka sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko Nerbioi itsasadarraren ezker aldean eta Oiertzualdean.



1.- Izenburua

Bideratu Berria Programa

2.- Araua

Agindua, 2017ko urriaren 17koa, krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituena (2017ko urriaren 24ko EHAA, 203. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

BIDERATU BERRIA programaren bidez, neurriak gauzatzea sustatzen da, epe ertain eta luzera bideragarritasuna ezartzeko egindako berregituratze-planen barruan.

Laguntzak aurrerakin itzulgarriak izango dira. Onartutako laguntzaren zenbatekoa planeko berregituratze-neurrien kostu osoaren % 50era artekoa izango da, baldin eta laguntzen onuradunak, bere baliabideak erabilia, hein berean laguntzen badu neurriak finantzatzen.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 0

Mantendutako lanpostuak: 0

Onartutako aurrerakin itzulgarriak: 0,00 milioi euro

Laguntza eman zaie 0 proiekturi (aurreikusitakoaren % 0a), eta 0 pertsonaren lanpostuak sendotu dira (aurreikusitakoaren % 0). Guztira, beraz, 0,00 milioi euroko ekarpena egin dute enpresek (aurreikusitakoaren % 0).

Programaren helburua da, krisiak jo arren, berriro lehiakorrak izateko aukera duten ETEen beharrianak asetzea eta, horrela, berriz bideragarriak izateko indarra eskaintzea.



1.- Izenburua

Nazioartekotze-bekak (Beint programa)

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko urtarrilaren 27koa, (16/2016 EHAA), Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, nazioartekotzeko beken Beint programa arautzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

30 urtetik beherako gazte titulatu eta graduatuak nazioartekotze-gaietan prestatzea, Euskadiko enpresek eta gainerako entitateek etorkizunean profesionalen datu-base bat izan dezaten, ekonomiaren erronkei bermeekin aurre egin ahal izateko.

Goi-mailako tituludunak eta unibertsitateko graduatuak kanpoko merkatuetan gaitzea, kanpoan praktikak eginez enpresa eta erakunde esportatzaileekin zuzeneko lankidetzan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ebatzitako kopurua: 3.290.131 euro.

Programa uzten dutenen kopurua hutsaren hurrengoaren % 5, bekadun asko laneratzen dira; gehienetan, praktikak egin dituzten enpresa kolaboratzaileetan. Bestalde, gero eta enpresa gehiagok eskatzen dituzte bekadunak praktikak egiteko.



1.- Izenburua:

Global Training beka

2.- Araua

AGINDUA, 2015eko apirilaren 1ekoa, (67/2015 EHAA) Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko martxoaren 26ko Agindua aldatzen duena. Azken horren bidez arautzen dira unibertsitateko eta goimailako lanbide-heziketako titulazioa duten gazteek atzerriko enpresetan eta erakundeetan praktikak egin ahal izateko «Global Training» deituriko beken programa abian jartzeko ahalmena duten erakundeentzako laguntzak.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko gazteak nazioartean mugitzera bultzatzea, beren profil akademikoari lotutako jarduerak eta proiektuak atzerriko herrialdeetako enpresetan eta erakundeetan egiteko, aldeztu aurretik planifikatutako trebakuntza praktikoko plan batekin.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ebatzitako kopurua: 4.120.000 euro.

Gutxienez 6 hilabeteko eta gehienez 12ko iraupena duten 410 bekarako deialdia egin da 2017. urtean. Entitate laguntzaileen eskutik jasotako eskaintzen arabera, entitateek ahalbidetzen dituzten luzapenei esker, 8 hilabeteko iraupena izango dute batez beste. Aurten 7 dira entitate laguntzaileak, haietako asko beste entitate batzuekiko lankidetzan.



1.- Izenburua:

Global Lehian - Banaka nahiz lankidetzan jarduten duten ETEen nazioartekotzeari laguntzea

2.- Araua

2014ko martxoaren 19ko AGINDUA, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko sailburuarena, banaka nahiz lankidetzan jarduten duten ETEen nazioartekotzeari laguntzeko Global Lehian programa garatzekoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Global Lehian programak itzuli beharrik ez duten diru-laguntzak ematen ditu, enpresek nazioartekotzeari dagokionez duten heldutasun-mailaren arabera ordenatuta, hiru etapa bereiziz:

- Hasiera.
- Finkapena.
- Kanpoko ezarpenak.
- Talentuaren aktibazioa eta erakundeen egokitzapena merkatu globalera.

Hasierako etapa, Sendotzekoa eta Atzerrian ezartzekoa elkarren segidako etapa gisa ikusten dira, eta, horregatik, etapa bateko laguntzak lortu ahal izateko, aurreko etapa gainditu izana eskatzen da. Aitzitik, Talentua aktibatzeko eta antolakundeak merkatu globalera egokitzeko etapa potentzialki konkurrentzian egon daitekeela uste da beste hirurekin.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ebatzitako kopurua: 3.889.423,90€ euro.

Global Lehian programak atzerriko merkatuetara irteteko aukera eman die enpresa txikiei (plantillan 50 langile baino gutxiago dituztenei), nazioartekotzeko laguntza eman die, bai lehenengo fasean (hasierako etapan) eta baita hurrengo faseetan ere, esportazio-jarduera erregularra duten enpresei (sendotzeko etapa).

Era berean atzerrian ezartzen lagundu du, enpresa esportatzaileak sendotuz eta finkatuz.

2017. urtean 356 izan dira, eta 271tan onartu da laguntza.

Etapen arabera, hauek lirateke datuak:

| Etapa | Aurkeztutako eskaerak | Eskaera ezetsiak | Onartutako eskaerak |
|------------------------|------------------------------|-------------------------|----------------------------|
| Hasiera | 45 | 13 | 32 |
| Finkapena | 293 | 69 | 224 |
| Ezarpenak | 18 | 3 | 15 |
| Talentuaren aktibazioa | 71 | 13 | 58 |



1.- Izenburua

Elkartzen

2.- Araua

2005eko martxoaren 15eko Agindua, irabazi-asmorik gabeko erakundeei kanpo-sustapeneko jarduerak egiteko laguntzei buruzkoa, 2012ko ekainaren 13ko Aginduaren bidez aldatua.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da euskal produktu eta zerbitzuek atzerrian duten presentzia areagotzea. Hortaz, euskal enpresek atzerriko merkatuetan jardutea bultzatu nahi da, merkatu horiek eskaintzen dituzten aukerez baliatu ahal izan daitezen.

Irabazi-asmorik gabeko entitateei zuzendua da; gure kasuan, sektore bereko kolektibo enpresarialak elkartzen dituzten elkarte sektorialeiei, sinergia handiko jarduerak egiten baitituzte euskal enpresek atzerriko merkatuetan duten presentzia indartzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ebatzitako kopurua: 1.595.526,22 euro.

2017an 30 elkarte sektoriali eman zitzaaien laguntza; 94 feria egin zituzten atzerrian, zuzeneko 167 misio orokor burutu zituzten beren enpresekin batera, eta alderantzizko 51 misio komertzial erakarri zituzten Euskadira.

Guztira, 428 ekintzek jaso zuten laguntza, aurrekontu-memorian aurreikusitako 330etatik.



1.- Izenburua

Interlehian Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko apirilaren 6koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, nazioarteko lizitazioetan parte-hartzen laguntzeko Interlehian 2016 programa arautu eta horren deialdia egiten duena, 2016ko ekitaldirako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei kanpoko merkatuetan sartzen laguntzeko, Interlehian programa jartzen da indarrean, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek nazioarteko lizitazioetan parte har dezaten sustatzea azken helburu gisa hartuta.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017an 13 eskaera jaso dira 5 enpresas ezberdinetatik eta emandako diru laguntza 80.097,57.- €koa da.



1.- Izenburua:

Landhome

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko ekainaren 29koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegora itzultitako euskal profesionalak kontratatzeko, 2016ko ekitaldiari dagokionez, EAEn kokatutako enpresei diru-laguntzak emateko LANdhome programaren arauak ezarri eta deialdia egiteko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Haien karrerak kanpoan garatzen ari diren euskal profesionalak egoitza EAEn duten enpresetara itzul daitezten sustatzeko laguntza publikoa ematea dute helburu.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ebatzitako kopurua: 17.000 euro.

1. artikulua xederako 200.000 euro bideratuko dira; 100.000 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio eta 100.000 euro 2018ko konpromiso-kredituari. Era honetako programa bat abian jarri zenetik igaro diren bi urte hauetan pertsona baten kontratazioa sustatu da deialdi bakoitzeko.



1.- Izenburua

Gauzatu Kanpo-Ezarpenak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko apirilaren 6koa, Agindua, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, honen bitartez, Euskadiko enpresen kanpo ezarpenak sor eta gara daitezten sustatzeko GAUZATU KANPO EZARPENAK Programa arautzen da (2016ko maiatzaren 9ko EHAA, 86 zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal enpresen kontsolidazioa sustatzea, kanpoko merkatuan egiten den inbertsio ekoizlea gehituz, haien lehiakortasuna eta, beraz, haien etorkizuneko bideragarritasuna areagotzeko formula gisa.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ebatzitako kopurua: 1.157.400,40 euro.

Helburu horretara bideratutako baliabideak 5.000.000 euro dira.